

EUSKALZALEEN-BILZARRA.

1913.

Le Congrès annuel de *l'Euskalzaleen-Bilzarra* s'est tenu à *Guéthary*, le 23 7^{bre}, dans la salle dite *de la Terrasse*, gracieusement accordée par l'honorable *M. Archier*, maire de cette coquette Station balnéaire.

L'assemblée s'étant trouvée réunie vers 10 heures, M. le Maire voulut bien lui adresser un discours de bienvenue, avec des paroles explicitement sympathiques pour *l'Euskara* et pour sa conservation. Le Président, l'honorable *M. E. Decrept*, exprima, à M. le Maire, sa reconnaissance et celle de l'assemblée, avec des paroles senties, et l'assemblée couvrit leurs discours respectifs de vifs applaudissements.

Ensuite, M. le Président déclara la séance ouverte, et les travaux de l'assemblée commencèrent, par la proclamation et l'admission de 42 nouveaux adhérents. Le *Compte-rendu* précédent fut approuvé ensuite, et l'on entendit avec satisfaction M. le Trésorier déclarer l'existence en Cuisse d'un boni de 800 francs.

La question du *Concours basque* s'ouvrit tout aussitôt. Ce Concours fut l'œuvre de la *Commission permanente*. Celle-ci fut instituée par le précédent Congrès, à l'effet d'obtenir, si possible, de Mgr. l'Evêque pour le Grand-Séminaire, et de M. l'Inspecteur d'Académie pour les Ecoles primaires, l'enseignement de l'Euskara. Ce que l'on se contenta de solliciter et qui fut libéralement accordé, ce fut l'institution d'un Concours de *Composition littéraire* basque et de *Version* du français en basque, ouvert aux Séminaristes, avec 2 prix de 150 francs, soit deux 1^{ers} prix de 100 francs et deux 2^{èmes} prix de 50 francs; et d'une *version* du français en basque, ouvert aux Elèves des Ecoles primaires, publiques et libres, avec un prix à graduellement

fractionner de 200 francs; soit en résumé: 100 + 50 + 100 + 50 + 200 = 500 francs, pour être ainsi proposés annuellement.

A la suite de cet exposé, furent proclamés les résultats obtenus:

I. Concours entre Séminaristes.

1°. Composition littéraire.

La 1^{ère} et la 2^{ème} copie étant de mérite sensiblement égal, il a fallu additionner les chiffres du 1^{er} et du 2^{ème} prix, et en diviser la somme par 2, pour avoir le chiffre attribuable à chacun des lauréats, soit $\frac{100+50}{2} = 75$ francs. D'où nous disons:

Prix *ex aequo* décerné à MM. les abbés:

Jean Etcheverry de St. Michel 75 fr.

Charles Orabe de Roquiague 75 „

Total: 150 fr.

2°. Version du français en basque.

1^{er} prix, décerné à M. l'abbé:

Sauveur *Arotçarena* d'Isturitz 100 fr.

2^e prix, décerné à M. l'abbé:

Jean Etcheverry de St. Michel, déjà couronné 50 „

Total: 150 fr.

II. Entre Elèves des Ecoles primaires.

Version du français en basque.

1^{er} prix unique de 25 francs, décerné à M.:

Bernard Abeberry de Bidart.

Deux 2^{èmes} prix de 20 francs, décernés à MM.:

Jean -Baptiste Etchecopar de Gotein - Libarrenx,

Jean- Pierre Coumettou d'Espelette.

Deux 3^{èmes} prix de 15 francs, à M. et à M^{elle}:

Jeun Etcheverry d'Espelette,

Catherine Darnauthandy de Villefranque.

Trois 4^{èmes} prix de 10 francs, à MM. et à M^{elle} :

Jean-Baptiste Dunat de Mendionde,
Jean- Pierre Eguren d'Espelette,
Marie- Jeanne Inçaugarat de Baïgorry.

Enfin, 16 prix de 5 francs, attribués à M^{elles} et à MM.:

Jeanne Arhancet de Lacarry-Arhan,
Salvat Barberia de St. Pée-sur-Nivelle,
Auguste Darraïdou d'Espelette,
Louis Vivensang d'Espelette,
Marie Darnauthandy de Villefranque,
Madeleine Iriart de Baïgorry,
Catherine Eyherabide d'Espelette,
Marianne Eyherachar de Mendionde,
Marie Falxa de Baïgorry,
Madeleine Greciet d'Espelette,
Marie Ipharraguirre d'Espelette,
Brigitte Irigoin d'Espelette,
Marie- Jeanne Ithurralde d'Espelette,
Nasaire Ithurralde d'Espelette,
Jean Labadie de Bidarray,
Catherine Oronos de Baïgorry.

Après la proclamation des résultats, on lut la Composition de M. l'abbé Orabe, écrite en dialecte souletin et intitulée: *Lamiak* (Esprits follets). L'impression publique ne put que gagner, à la lecture, faite avec une distinction toute souletine, par l'honorable M. l'abbé de Menditte, curé d'Ordiarp. Le récit fut vivement applaudi. On allait lire, tout aussi volontiers, la Composition de M. l'abbé Etcheverry, écrit en bas-Navarrais occidental et intitulé: *Uholdea* (Débordement). L'heure avancée ne le permit point. — Une observation, inspirée par la lecture faite, circula dans l'assemblée, à savoir qu'il y aura lieu, à l'avenir, de prémunir les concurrents contre exagération contraire dans *les proportions* du devoir présenté.

M. le Secrétaire soumet alors à l'assemblée la demande d'un concours spécial en faveur de MM. les Vicaires; demande présentée par l'un d'entre eux, tout en exprimant sa préférence, pour prix d'un

exemplaire du Dictionnaire trilingue de *M. l'abbé de Azkue*. La demande est accueillie avec faveur et votée à l'unanimité.

MM. les Instituteurs, membres de l'association, faisant preuve d'un zèle égal à l'égard de notre Langue, demandent aussi un concours, en faveur du corps enseignant. Leur demande est aussi agréée et votée de même à l'unanimité.

Entrant dans cet ordre d'idées; et voulant aider la Caisse commune à fournir des primes convenables, *M. Lesca*, de Guéthary, nouveau membre, offre un don de 50 francs, et *M. Broussain*, maire de Hasparren, en offre un de 40 francs, dons renouvelables d'année en année. *M. Grattau*, reproducteur de la Liqueur basque, qu'il a dénommée *Izarra*, s'excuse de remettre à l'an prochain le don de 500 francs, promis pour cette année, à l'effet de susciter un Concours de poésie, propre à la préconisation de *l'Izarra*; et, comme componende, il s'offre à verser tout-à-l'heure 100 francs à la Caisse de l'association. L'assemblée remercie ces Messieurs de leur bienveillante générosité et les couvre d'applaudissements.

Alors, *M. Estoueigt*, membre de l'association, ayant demandé et obtenu la parole, se plaint véhémentement, de ce qu'il ne soit pas fait un essai de vaste propagande, pour le recrutement rapide, de nombreux adhérents. M. le Président lui répond, que le changement annuel du lieu de réunion de notre Congrès n'a pas d'autre but, et que cette année, cette mesure a été appuyée par l'envoi, dans le Canton du lieu de notre réunion, d'une circulaire de propagande. Il ajoute que nous venons d'ouvrir notre Liste, à un nouveau groupe de 42 adhérents, et de nous adjoindre, par ce fait, des hommes d'élite, dont la présence est un honneur pour nous et nous remplit d'une profonde reconnaissance.

Au même moment, *M. Abeberry*, instituteur de Bidart, demande à son tour la parole et proclame l'incontestable utilité de faire servir la Langue basque, à l'initiation, au français, de nos jeunes compatriotes. Il en fait dès longtemps l'heureuse expérience, et dans sa classe et dans son cours d'adultes, et il n'est pas près d'y vouloir renoncer. L'assemblée approuve ses déclarations et les fait suivre d'unanimes applaudissements.

M. le Secrétaire présente alors à l'assemblée une Liste de

120 mots que le *Cher Frère Juvénal-martyr* a recueillis de longue date et qu'il vient d'adresser au Congrès. „Ce sont, dit-il, des mots purs basques, menacés d'après moi de disparaître prochainement.“ On n'a pas le temps voulu pour les lire et pour les discuter. L'on agira vis-à-vis de ceux-ci, selon le précédent établi dans un pareil cas. On les confrontera avec le Dictionnaire de M. l'abbé de Azkue, et ceux qui ne s'y trouveraient pas, seraient publiés dans la *Revue internationale des Etudes basques*.

M. le Secrétaire demande, si tout Président de fait, aurait droit, à la fin de son mandat non renouvelé, et sans intervention d'un vote laudatif, de figurer sur la Liste des Présidents honoraires. L'assemblée, par l'organe de plusieurs membres, apprécie que rien ne s'oppose à ce que cette distinction leur revienne. Telle sera en conséquence, la pratique de l'Association.

Ici, le Secrétaire demande encore que la *Commission permanente* soit appelée à siéger, pour faire le Choix des sujets à proposer aux différents concours, pour veiller à ce que les sujets choisis soient communiqués en temps utile aux intéressés, pour indiquer enfin, et l'étendue judicieusement limitée des Compositions littéraires, et la date précise, tant de la présentation des copies, que de la remise aux lauréats des récompenses méritées. Cette demande est prise en considération, et la *Commission permanente*, de même composition que précédemment, reste invitée à fonctionner aux dates et lieux à fixer par M. le Président.

Enfin, à la demande de M. *Georges Lacombe*, Président honoraire, une *Commission* de neuf membres est chargée de se mettre en rapport, *le cas échéant*, avec la Municipalité de Bayonne, pour pouvoir lui apporter, son concours, dans la Fondation et l'Enrichissement du nouveau *Musée de la Tradition Basque*. Une lettre de M. le Docteur *Dutournier*, membre de l'Association, lettre remise trop tard pour être lue en séance, revendiquait l'idée de cette création pour l'*Euskalzaleen-Bilzarra*. C'était la vérité; mais puisque d'autres que nous ont donné un commencement de réalisation à cette idée, il s'agit de les aider avec compétence et bonne grâce, La commission est composée de:

MM. <i>Georges Lacombe</i>	}	Hommes de Lettres,
<i>Clément d'Andurain</i>		
<i>André Geiger</i>		
<i>Gabriel Roby</i>	}	Artistes Peintres.
<i>Charles Colin</i>		
<i>J. B^e Darroquy</i>	}	Architectes,
<i>Gratien Dibarrart</i>		
<i>Henri Godbarge</i>		
et le Président.		

En dernier lieu, le renouvellement du Bureau annuel présentant des difficultés, par le refus de plusieurs membres d'accepter la Présidence, il a été décidé, par acclamation, que *le Bureau* actuel, restera en fonctions, pendant une nouvelle année. Il demeure donc formé, comme il suit:

MM. <i>Etienne Decrept</i>	Président,
<i>Don Juan Bautista de Larreta</i>	} Vice-Présidents
<i>Jean Sagaspe</i>	
<i>Jean Claude Salaberry</i>	} Assesseurs
<i>Jeun Errecart</i>	
<i>Martin Landerreche</i>	Secrétaire perpétuel,
<i>Jean Baptiste Diriar</i>	Trésorier.

Il reste finalement décidé que le Congrès aura sa prochaine réunion à *St. Jean-Pied-de-Port*.

C'est vers 13 heures que l'Hôtel de la Plage put disposer pour l'assistance de sa plus grande salle, et qu'on fit savoir que l'on était servi.

Le repas fut présenté dans les meilleures conditions et suivi de brillants concerts, qui furent donnés, d'un côté par deux associés, assidus aux réunions, les avocats artistes Tolosanos, *don Isaac Lopez de Mendizabal*, pianiste consommé, et *don Jose de Eizaguirre*, beau ténor; et d'autre côté par *M^{me} Clouzet-Claverie*, cantatrice, applaudie à outrance, et par *M. Cerdan*, basse admirée de l'Opéra, avec les *solis* de plus en plus en vogue du premier ténor *M. Cazenave*, notre

compatriote et ami. Le piano était tenu pour ces artistes, par le distingué virtuose qu'est notre Trésorier, *M. Diriar*.

Les chers associés, pleins d'enthousiasme, se séparèrent vers le déclin du jour, aux cris répétés de:

Gora Euskal-Herria !

Gora Euskara !

Gora Euskalzaleen-Bilzarra !

Espelette, le 15 octobre 1913.

Le Secrétaire perpétuel de l'Association:

Abbé MARTIN LANDERRECHE.

EUSKALZALEEN-BILZARRA.

1913.

Euskalzaleen-Bilzarrak, aurthengo bil-aldia zuen Guetharian, buruillaren 23^{an}, *Jaun Archier* herriko hauzaphezak onhetsia zioen itsas-aldeko barnedegi batean. Jaun Hauzaphezak egin dio bilkhurari ongi-othorria, erran ere bai, haren nahi zinezkoa dela, Euskal-mintzairaren irauten eta distiratzan ikustea. — *Jaun Decrept* bilzarburu lehenak ihardetsi dio, esker onak guzien izenean emanek, eta bilkhurak bata nola bertzea goretsi ditu, esku zarta khartsuak adiaraziz.

Orduan, Buru lehenak erasaten du, bilzar-lana hasterat dohala, eta aiphu ditu berrogoi bat euskalzale, Laguntasunerat sartzea galdetzen dutenak. Onhesten dire guziak. — Hortarik harat onhartuak dire jazko bilkhurari behatzen zaizkon chehetasunak, eta atsegin handiz aditzen da *Jaun Diriar*, har-emanaren buru duguna, erasaten, gastuak berdindurik, eskuetan gelditzen zaizkola *800 libera*.

Aiphu dire gero, Semenari handiko aphezgaien eta eskoletako haurren euskarazko zeingehiagoka, huna nola ethorriak. — Bizpahirur urthe huntan, Bilzarraren asmu khartsuena zen ardiestea, izan dadien *Euskal-mintzaira*, Semenariotan eta eskoletan irakatsia. Asmu horri buruz, jazko bilkhurak izendatu zuen kontseilu berezi bat: Buru-lehenaren erranetik bilduko zena, eta irakaspen horren, ahal bazen ardiestiaz eginen zuena. — Kontseilu horrek bada, ez baietan egoturik, eta goragoko chedeak ahal zenaz haztaturik, galdetu zuen eta ardietsi, ez nahi zaitekeen irakaspena, bainan orai aiphu dugun zeingehiagoka, bere aldetik, zathitzeko zuketen 500 liberako garaitsari bat hitzemanik. Huna zer eta nola.

1°. Jaun Aphezpikuaren baimenez, onhetsi dire Semenari handiko aphezgaiak, euskarazko bi lanen egiterat: *bata*, zeinaren bere burutikakoa, lehenarentzat 100 liberako eta bigarrenarentzat 50 liberako garaitsariekin . . . 150 lib. eta *bertzea*, frantsesetik euskararako itzulkuntza bat, hoberenarentzat 100 eta higarrenarentzat 50 liberarekin 150 „

2°. Akademiako Jaun Espeturraren baimenez, eskoletako haur gazteeri halaber onhetsia zaiote, frantsesetik euskararako itzulkuntza, garaitsaritzat hitzematzen zaizkotelarik, lan eginaren arabera zathituak izateko . . . 200 „

Izanen delarik, gisa hortan, Bilzarraren urtheke emaitza 500 lib.

Chehetasun hoikien ondotik, *Jaun Georges Lacombe*, buru-lehen goretzizkoak erasan ditu garaitzarien izenak eta irabaziak:

I. Aphezgaien arteko zeingehiagoka.

1°. Zeinek bere burutikako lana.

Bata bertzearen berdineko atheratu dire, lehembiziko bien lanak. Behar izatu dire beraz, lehen eta bigarren garhaisariak baterat bildu eta erditik egin. $\frac{100+50}{2} = 75$. 75^{na} libera baduke beraz bakhotchak: $75 + 75 = 150$. Jaun garaitzari hoik dire:

Jean Etcheverry, Eiheralarrekoa,

Charles Orabe, Arrokiagakoa.

2°. Frantsesetik euskararako itzulkuntza.

Lan hortako, garaitzari atheratu dire:

Lehen, *Sauveur Arotçarena*, Ichturizekoa, izateko 100 lib.

Bigarren, *Jean Etcheverry*, Eiheralarreko bera, izateko . . . 50 „

150 lib.

II. Eskoletako haurren frantsesetik euskararako itzulkuntza.

Gurhaitzariak dire;

25 liberako lehen sari baxharra emanen zaioena:

Bernard Abeberry, Bidartekoa.

20^{na} liberako sari bana emanen zaiotenak:

Jean-Baptiste Etchecopar, Gotaiñekoa,
Jean-Pierre Coumettou, Ezpeletakoa.

15^{na} liberako sari bana hartuko dutenak:

Jean Etcheverry, Ezpeletakoa,
Catherine Darnauthandy, Villafrangakoa.

10^{na} liberako sari bana hartuko dutenak:

Jean-Baptiste Dunat, Mendiondokoa,
Jean-Pierre Eguren, Ezpeletakoa,
Marie- Jeanne Inçaurgarat, Baigorrikoa.

Eta 5^{na} liberako saria emanen zaiotenak:

Jeanne Arhancet, Lakharry-Arhanekoa,
Salvat Barberia, Semperekoa,
Auguste Darraïdou, Ezpeletakoa,
Louis Vivensang, Ezpeletakoa,
Marie Darnauthandy, Villafrangakoa,
Madeleine Iriart, Baigorrikoa,
Madeleine Greciet, Ezpeletakoa,
Marianne Eiherachar, Mendiondokoa,
Catherine Eiherabide, Ezpeletakoa,
Marie Falxa, Baigorrikoa,
Marie Ipharraguirre, Ezpeletakoa,
Brigitte Irigoin, Ezpeletakoa,
Marie- Jeanne Ithurralde, Ezpeletakoa,
Nasaire Ithurralde, Ezpeletakoa,
Jean Labadie, Bidarraikoa,
Catherine Oronos, Baigorrikoa.

Chehetasun hoikien ondotik, Bilkhurak galdetzen du, saristatu diren lanetarik bi berezienen irakurkuntza. Irakurtzen da lehenik, *Charles Orabe-ren* lan, hitzburuko duena: *Lamiak*, Zuberoko mintza molde garbiz egina. Irakurtzen du, mihi zuberotar ez gutiago garbiz, Jaun aphez *de Menditte*, Urdiñarbeko erretorak. Kausitzen du Bilkhurak arthatuki egina, aditzerako leguna, gogoko adit errecha, burutik buru jarraikia, bertze orduzko gure irule hautukoen haria bezala, arte

mehar edo chori lephorik gabea, hedaduraz hargatik urrun ibilia; aski urrun, irakurtzerat ez uzteko, aphezgai *Jean Etcheverry*, Eyheralarrekoaren lan orobat ederra. — Hunek deithu zuen bere lana: *Uholdea* eta moldatu mendebal aldeko Nafar-beheretar mintzairan; manatzen dioten moldea, eskualde hoitako iskribatzaileeri, herriko mintzairak batetik, eta ikhasi zuten katichimak eta irakurtzen zuten eliza-liburuak bertzetik.

Orduan aiphu da, Jaun Bikario batek, beretzat eta bere lagunentzat galdetzen duela, euskarazko zeingehiagoka berezi baterat onhetsiak izatea, garaitsaritzat bere aldetik nahiago lukeelarik, zer nahi baino, Jaun aphez Azkue-koaren eskutikako Hiztegi bat. — Jaun Errient batek, zeingehiagoka beraren galdea egiten du, beretzat eta bere irakastun lagunentzat. — Jaun hoikien nahia onez ikusia da, eta Bilkhurak onhesten diote galdetzen dutena.

Gauzak nola dohazin ikusiz, eta khar eder horren saristatzen *Bilzarra* nahiz lagundu, *Jaun Lesca* Guethariakoak eta *Jaun Broussain* Hasparneko hauzaphezak, egiten dute, batek 50 liberako eta bertzeak 40 liberako baten emaitza, urthetik urthera erreberritu gogo dutena. — Horri darraikola, *Jaun Grattau*, *Izarra* deritzan, Euskal-Herriko edari aiphatuaren erreberritzailea, chutitzen da. Dio Jaun horrek, bere egitekoen handiaren handiz, aurthen ezin heldu dela, *Izarra* -ren goresmenetako zeingehiagoka batentzat agindua zuen 500 liberako garaitsariaren aiphatzerat. Bainan, gibelamendu horren ordainzkatzeko, orai beretik Bilzarrari ematen diozkala 100 libera. — Hirur emaile berezi hoikien esku nasaizia, eta Euskararen alderako khar handia, bilkhurak saristatzen ditu, esku zarta khartsuenak adiaraziz.

Hortan, eta naski oraidanik diru behar handiagoak dituzkegula ikusiz, *Jaun Estoueiqt*, bilzar lagunak, galdetzen du bizitasun handiz, zergatik bilzar-buruzagiek ez duten behar dena egiten, euskaldun zerbeitetako diren guzien, Laguntasunerat bil-arazteko. — Burulehenak ihardesten dio, hortarako chedez, urthetik urtherako bilaldia egiten ditugula bethi lekhuz aldatuz; eta aurthen egin dela bertzalde gombidu berezi bat, bil-tokiaren ingurumenari buruz. Hala hala, ikusi direla egun hartan berean Laguntasunerat sartzen, berrogoita zembait euskalzale berri, eta hekien artean zembait eskualdeko Jaun aiphagarrietarik.

Ordu hartan, mintzatzerat onhetsia, izaturik, *Jaun Abeberry* Bidarteko Errientak, khar handiz adiarazten du, ez dela, frantses mintzairaren gure herritar gazteen buruan sar-arazteko, urhaspide hoberik, nola baita Euskal-mintzairaren laguntza. Dio aspaldidanik urhaspide hori baliatu-zaiola, bai bere eskolako haurren, bai arrats-bilkhuretako muthil-gazteen eretzean, eta ez dagoela, urhats hoin baliosari ukho egitekotan. Bilkhurak Jaun horren hitzari ematen diozka esku-zarta handiak.

Ordu berean, Iskribariak atheratzen ditu bilkhuraren begietarat, ehun eta hogoi bat euskal-hitz garbi, dioelarik, helarazi dituela Anaia-Fraide Eskola Girichtinoetako *Juvenal martyr*, Hazparneko Eskola buruzagi ondoak. Iduritu zaio, jenden artean arrotzerat emanak direla, eta nahi badire begiratu, artha handiz bilduak izatea eman litzaioketela. Ez zaio hargatik bilkhurari iduritzen, aski dem-bora badugula, hitz hoikien irakurtzeko, eta, hoitarik zembeiten gainean, eztabadatzeko. Hitzartzen da choilki, hitz horiek, bertze orduz *Jaun aphez Althabe* zenak hel-arazi zauzkigunak bezala, Jaun aphez Azkue-koaren Hiztegiari partuko zaizkola, eta han aurkhitzen ez direnak, *Don Julio Urquijo* -koaren Hilabetekarian emanak eta han ezagut-araziak izanen direla.

Iskribariak galdetzen du, behar den edo ez, Buru-lehen bat, buruzagitasunetik atheratzen denean, bilkhuraren manurik gabe, buru-lehen goretsizkoen herronkarat sarthu. Bilkhuraren nahia da, goresmen hori onhets dakioten, buruzagitasuneko bere kharraz irabazia duten golardo bat bezala.

Galdetzen du oraino, *kontseilu berezia* (Commission permanente), lehengo moldez bilaraz dadien, eta zedarrista dezan gure zeingehiagokarien urhaspidea, erranez: zer langai eta noiz emateko zaioten, lan egitekoeri zer laburtasun edo luzetasun onhets dokioketen, noiz eta norat lan eginek heltzeko duketen, eta azkenekotz garhaisariak garhaitzarieri, noiz eta zer bidez eskuetaratuko zaizkoten. Ihardesten zaio, erran den bezala eginen dela.

Azkenekotz, *Jaun Georges Lacombe*, bilzar-lagun eta goretsizko buru lehenetarik baten erranetik, hitzartu da bigarren *Kontseilu berezi* baten moldatzea. Kontseilu horrek eginbidetzat duke, behar balitz, Baionako hiriko Kontseiluarekin elgar-aditzea, ahal laitekenaz

haren laguntzeko, euskal-orhoitzapenezko gauza iraganekoen biltzen eta ikusgarriki begiratzten. Jaz ezen, *Jaun Adrien Dutournier* dotor miriku, gure bilzar-lagun goretsiak, iskribatu zioen Bilzarrari, urtheko bil-aldiari buruz, urhaspide hori beraren abiatzerat haren erakartzeko. Beranduegi eskuraturik, ezin irakurtu zen bilkhuran guthuna, bainan ez gare gutiago ekharriak, bertzek hasi duten, urhaspide ederraren, ahal dugun guziaz eta gogorik hoberenez, lehiatuki laguntzerat. — Erranden Kontseiluko, izendatzen dire Kontseilari, Jaun eta Jaun :

<i>Georges Lacombe</i>	}	Hommes de Lettres,
<i>Clément d'Andurain</i>		
<i>André Geiger</i>		
<i>Gabriel Roby</i>	}	Artistes Peintres,
<i>Charles Colin</i>		
<i>J. B^e Darroquy</i>	}	Architectes,
<i>Gratien Dibarrart</i>		
<i>Henri Godbarge</i>		

eta Buru lehena.

Azken bilhaburu, izendatzerat zohazin urtheko bilzar-buruzagiak. Buru-Lehen egin nahi zirenek ordean, ez nahikaturik onhetsi, bilkhurak boz batez galdetzen du, iragan urtheko bilzar-buruzagiek, atchik detzaten urthe batez oraino beren jar-tokiak. Onhesten dute, eta izanen dire bigarren aldiko :

Jaun <i>Etienne Decrept</i>	Buru-Lehen,	
„ <i>Don Juan B^{ia} de Larreta</i>	}	Buru bigarren,
„ <i>Jean Sagaspe</i>		
„ <i>Jean-Claude Salaberry</i>	}	Buru direnekin jartzaile,
„ <i>Jean Errecart</i>		
„ <i>Martin Landerreche</i>	Iskribari bethiko,	
„ <i>Jean B^e Dirriart</i>	Har-emanaren buru.	

Eguerditik oren batean, jartzen dire Bilzar-Lagunak itsas hegi hegiko Ostalerian, eta egiten dute jan-aldi bat, berek nahi bezalakoa.

Baziren gero arratsalderik ederrenaren bozkariagailu : Bi bilzar-lagun Tolosar gazte, bat kantari gorako, bertzea pianoko, *Don Jose de Eizaguirre* eta *Don Isaac Lopez de Mendizabal*, urthetik urthera

prezagarriago zauzkigunak; eta *Andre Clouzet-Claverie*, kantari miresgarri eta miretsia, *Jaun Cerdan*, Parisko Operan aphaleko lehena, eta *Jaun Cazenave*, Parisen gorako lehen dena, gure herritar eta adiskidea, laguntzaile zutelarik zeinek bere aldian *Jaun Diriar*t, bilzarlagun, pianoko bera baino gehiagokorik ezagutzen ez zaiocena: Kantari eta musikari, bilkhurak saristatu dituenak, esku zarta ezin ichilduzkoz eta khartsuz.

Guziaren buru, Bilzar-Lagunek, zeinek bere bidea hartzen dute arratsari buruz, eskuak elgarri tinkaturik, eta alde guzietarik errepikatuz :

Gora Euskal-Herria !

Gora Euskara!

Gora Euskalzaleen - Bilzarra !

Ezpeletan, Urriaren 15^{ean} 1913^{garrenean}

Bethiereko Iskribari :

MARTIN LANDERRECHE, apheza.